

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

“Vitoria-Gasteizko tranbia Unibertsitatera luzatzeko eraikuntza-proiektua”k hasiera batean ukitutako finen jaregitea eta espedientean 4. eta 5. zenbakiekin identifikatutako finen jaregite partziala deklaratzan duen 2020ko maiatzaren 20ko Garraio Azpiegituren zuzendariaren ebazpenari buruzko iragarkiaren akatsaren zuzenketa

2020ko ekainaren 3an 62. zenbakiarekin ALHAOn argitaratutako 2020/1206 iragarkian akatsa aurkitu denez, osorik argitaratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 5a

Garraio Azpiegituren zuzendaria
MIKEL GURUTZEAGA ZUBILLAGA

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

Ebazpena, 2020ko maiatzaren 20koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez deklaratzan baita “Vitoria-Gasteizko tranbia Unibertsitatera luzatzeko eraikuntza-proiektua”k hasiera batean ukitutako finen jaregitea eta espedientean 4. eta 5. zenbakiekin identifikatutako finen jaregite partziala

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2017ko apirilaren 4ko Ebazpenaren bidez, “Vitoria-Gasteizko tranbia Unibertsitatera luzatzeko eraikuntza-proiektua” onetsi zen.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2017ko apirilaren 24ko Ebazpenaren bidez, aipatutako proiektua gauzatzeko beharrezkoak ziren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedura hastea erabaki zen.

Halaber, ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zen, eta 2017ko irailaren 15ean behin betiko onartu zen, aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren.

Ebazpen berean, okupazioaren aurreko aktak egiteko deialdia egin zen, eta ekintza Vitoria-Gasteizko udaletxean 2017 urriaren 18an eta 19an izan zen.

Gaur egun, egiaztatu da ez dela beharrezkoa hasiera batean ukitutako finen afekzioa (espedientean 4. eta 5. finak izan ezik), fatxadako euskarrien aurreikusitako afekzioaren ordez, jabari publikoaren gainean kokatutako katenariako makuluak eta zutoinak jarri baitira.

Horren ondorioz, hasiera batean ukitutako finkak desfektatu egiten dira, ondoren adierazten direnak:

FINKA-ZENBAKIA	JABEA	KATASTROKO ERREFERENTZIA
1	Vitoria-Gasteizko Udala	57-811
2	Vitoria-Gasteizko Udala	58-550
3	Vitoria-Gasteizko Udala	58-553
6	Castro Urdiales 11. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-710
7	Castro Urdiales 9. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-710
8	Castro Urdiales 5. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-710
9	Dulzaina 2. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-710
10	Castro Urdiales 3. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-714
11	Castro Urdiales 1. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-714
12	Flandes 1. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
13	Flandes 3. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
14	Flandes 5. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
15	Flandes 7. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
16	Flandes 9. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
17	Flandes 11. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
18	Flandes 13. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
19	Flandes 15. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-469
20	Euskal Herriko Unibertsitatea EHU-UPV	58-470
21	Nieves Cano 1. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-480
22	Nieves Cano 3. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-480
23	Nieves Cano 7. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-479
24	Nieves Cano 11. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-479
25	Nieves Cano 13. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-479
26	Nieves Cano 15. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-479
27	Nieves Cano 17. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-479
28	Nieves Cano 27. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-479
29	Nieves Cano 29. zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-477
30	Nieves Cano 29. D zenbakiko jabekideen erkidegoa	58-472

Bestalde, eta proiektuaren aldaketaren ondorioz, espedientearen 4. eta 5. finken desfektazio partziala gertatu da.

4. finkari dagokionez, afekzioa murriztu egin da; hasiera batean, proiektua bi bidetarako planifikatu zen, eta bide bakarrera aldatu da, han dauden lorategietan dagoen desbideratzeraino.

5. finkari dagokionez, zati bati eragin behar zaio, udal-araudiak eskatutako irisgarritasun-arrazoiengatik. Hala ere, ez da beharrezkoa aurreikusitako desjabetzea agortzea, eta eragina murriztu daiteke.

2017ko urriaren 18an eta 19an egindako okupazioaren aurreko aktetan jasotako espedientearen 4. eta 5. finken aurreikusitako eraginak honako hauek ziren:

FINKA-ZENBAKIA	JABEA	KATASTROKO ERREFERENTZIA	ERAGIN MOTA		
			ETENGABEKO OKUPAZIOA (M ²)	AINGURAKETA-ZORTASUNA (UNITATEAK)	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA (M ²)
4	Euskal Herriko Unibertsitatea EHU-UPV	58-412	1.445		910
5	Dantzari Plazako 8 ataritako jabekideen erkidegoa	58-727	38,40		171,26

Planteatutako aldaketaren ondorioz, finka horien gaineko behin betiko afekzioak honela zehaztuko dira aurrerantzean:

FINKA-ZENBAKIA	JABEA	KATASTROKO ERREFERENTZIA	ERAGIN MOTA		
			ETENGABEKO OKUPAZIOA (M ²)	AINGURAKETA-ZORTASUNA (UNITATEAK)	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA (M ²)
4	Euskal Herriko Unibertsitatea EHU-UPV	58-412	1.190		910
5	Dantzari Plazako 8. ataritako jabekideen erkidegoa	58-727	19,00		171,26

Aurreko guztiagatik, honako hau

Ebazten dut

Lehenengoa. Hasiera batean desjabetze-espeditentean ukitutako 1etik 3ra eta 6tik 30era finken jaregitea deklaratzeko.

Bigarrena. Espeditentean 4. eta 5. zenbakiekin identifikatutako finken jaregite partziala deklaratzeko. Hori guztia, ebazpen honetan ematen den informazioaren arabera.

Hirugarrena. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Ebazpen honek amaitutzat jotzen du administrazio-bidea. Haren aurka, berraztertze aukerako errekurtsua aurkez dakioke organo honi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112, 114, 123 y 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat eginez, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 20a

Garraio Azpiegituren zuzendaria
MIKEL GURUTZEAGA ZUBILLAGA